

## AURKEZPENA

Bidezkoa da Arantzazuko abestien bilduma honen jatorria argitzea: Arantzazu kantagai izan duten testu poetikoen azterketa eta bilduma (ADK liburu saila) egitean, bertako baladez, olerkiez eta bertso sortez gain, beharrezkotzat jo nuen Arantzazuri eskainitako eta bertako erramesek eta koruak abestu izan dituzten kanten testuak biltzea, santutegiaren inguruan sorturiko literaturaren parte direlakoan.

Literatura poetiko arantzazuarra oro har dago oso lotua kantari eta musikari: balada zaharrak kantuz transmititu izan dira, bertso-sortak sarritan kantuz sortu izan dituzte, Arantzazuko hainbat olerki kantu bihurtu izan dituzte gero musikariek. Beste testu asko zuzenean musikatzeko edo musikarekin batera landu izan dituzte, sarritan poeten eta musikarien arteko elkarlan estuan.

Baina abestien testuak konposizio musikalarekin daude bat eginda, eta partituren barruan daude idatzita. Sarritan olerki edo testu berberak doinu bat baino gehiago hartu dute eta musikari batek baino gehiagok musikatu izan ditu, hainbat aldiz testua bera birmoldatuz gainera; batzuetan testu jakin baten gain sortu eta abesturiko partiturari bestelako olerkia edo testua egokitu izan diote geroago. Horrela musikarien sormen eta kantarien interpretazio biziaren eraginez, hitzak ere testu bizi bihurtu izan dira, jatorrizko testuaren aldaera berriak eratuz. Abestien testuak aztertu eta horien eboluzioa egitean beharrezkoa zen, beraz, musikariek egindako horien erabilera kontu handitan hartzea; beharrezkoa halaber, kanten partitura ezberdinak aztertzea, testuen aldaerak ezagutzeko.

Partiturak biltzen eta sarritan horien fotokopiak egiten hasita, zergatik ez denon notazio digitala egin, eta Arantzazuko kanta guztien bilduma berria eta osoa landu, bide batez horien kopia berri eta erabilgarria segurtatuz? Ramon Udaberen trebetasuna partituren notazio digitalean eta beraren jarrera irekia aski izan ziren proiektua abiatzeko, eta beraren jarraiera tematia, hori burutzeko. Berak idatzi ditu, bada, bildumako partiturak –Antonino Ibarrondoren bandarako bi piezak Iñaxio semearen notazio digitalean jaso ditugu, eta beren horretan utzi–.

Jose Luis Zurutuzak eta Manolo Pagolak laguntza apartekoa eskaini dute, partitura digital gehienak irakurri

eta zuzendu eta beren ohar baliotsuak eginez. Eskerrik beroenak guztiei!

### Azterturiko artxiboak, bildumak eta aldizkariak

Arantzazu santutegiko artxiboa (AranMusArtx) eta Eresbil Euskal Herriko musika-artxiboa izan ditugu partituren iturri nagusi-nagusiak. Sarritan osagarriak gertatu zaizkigu bi artxiboak, batzuetan errepikatuta aurkitu ditugu partiturak. Horien osagarri baliozkoak gertatu zaizkigu Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunea eta Zarauzko Frantziskotarren liburutegiko musika-artxiboa. Esker ona agertu beharrean naiz Arantzazuko Artxiboen zaintzaile Joseba Etxeberriari eta Joan Jose Muniaini, batetik, eta Jon Bagues Eresbilen zuzendariari, bestetik; era berean eskerrak Manolo Beraza Zarauzko artxiboaren arduradunari eta Tolosako Santa Maria Parrokiako musika-artxiboaren arduradun Ignazio Negredo eta Ana Ansorenari.

Musika-artxiboez gain kanta-bilduma hainbat aztertu dugu: euskal eliz kantenak, batetik, eta batez ere Arantzazuko bilduma bereziak. Bestalde, zenbait aldizkari-tatik ere jaso izan ditugu Arantzazuko kanten partiturak, bereziki *Arantzazu* aldizkari-tik bertatik.

Kopiatuturiko jatorrizko partituren iturriak eta horiek bilatzeko indikazioak eman nahi izan ditugu bilduma hone-tan. Iturri nagusienon zerrenda doa jarraian:

Arantzazu: Musika Artxiboa –kontrakorik ezean Arantzazuko Musika Artxibo “Berriaz” ari naiz–

Erreterria: Eresbil E. H. ko Musika Artxiboa

Zarautz: Musika Artxiboa (Frantziskotar komentuko li-burutegia).

Arantzazu: Baladen eta Kanta Zaharren Bilduma: Be-reziki REA/JK, G2T eta OEA sortak (Arantzazuko Li-teratur Artxiboa).

X.X., *Ama Birgiña Aranzazucoaren condaira zortzico aundietan eta aurtengo erromeriaraco itz neurtu ba-tzuek*, Tolosa: Eusebio Lopezen moldiztegia, 1881.

Patricio Orcaiztegui, *Jesus eta Mariaren billeracoentzat itz neurtubac. Bai eta Egüerri, garizuma edo misiyo demboraraco, eta berebat dotriñan dabilzatzentzat, Ama guciz Garbiyaren alabai lembizi, guero berriz*

- aurtengo erromeriyagatic Arantzazuko Virgiñari esqueñiyac*, Tolosa: Pedro Gurruchaga moldiztegia, 1881.
- Salvatore Mitxelena, *Arantzazu, Euskal Poema*, Oñati: Edit. Aránzazu, 1949<sup>1</sup> (2. ed., 1984).
- *Ogei kanta Arantzazuko*, Arantzazu, 1949 (1. ed.).
- Jose Maria Ibarbia, *Arantzazukoak* (22 kanta) (Arantzazuko Musika Artxiboa, Sec. K, carp. n° 87).
- X. *Marcha nocturna a Aránzazu*, I eta II (bi koaderno: abesti-partiturak, eskuz idatziak; Arantzazuko Musika Artxiboa, Sec K, carp. n° 106).
- Martzelino Idoiaga, *Arantzazuko Amari* (25 kanta, eskuko kopiak), (Arantzazuko Musika Artxiboa, Sec. K, carp. 109).
- *Cantos Religiosos* (I. t.): Arantzazuko hainbat kanta, gehienak berak harmonizatuak, organoko laguntzarekin –seguruenik 1950-1952 ingurukoak– (Arantzazuko Musika Artxiboa, Sec. K, Carp. n° 104).
- *Diversas obras* (46 pieza musikal: 25 Arantzazukoak (Arantzazuko Musika Artxiboa)
- *Ogei kanta Arantzazuko*: S. Mitxelenaren OKA liburukako abestien organoko harmonizazioa (Arantzazuko Musika Artxiboa: Sec. K, carp. n° 6).
- Arantzazuko korua* (Iñaki Beristain, edit.): 4. atala, “Maria” (Arantzazuko Musika Artxiboa, Sec. K, carp. n° 112).
- Vicente Aramburu, *Colección de cantos religiosos / Eliz abesti sorta*, Bilbao: Talleres Ordorica, 1947.
- Resurrección M. Azkue, *Cancionero popular Vasco*, Bilbao: Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca, 1968.
- Adolfo Arejita, Igone Etxebarria, Jaione Ibarra, *Mendebaleko Euskal Baladak. Antologia*, Bilbao: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa, 1995. Arantzazuko 15 balada daude bertan jasota, gehienetan doinu eta guzti.
- Igone Etxebarria, *Arantzazuko Balada edo Kanta Zaharrak*, Oñati: Arantzazu E.F., 2003.
- Antonio Zabala, *Euskal erromantzeak / Romancero Vasco*, Auspoa liburutegia, 1998. 671-722 or: “Arantzazuko erromantze zaharrak”.
- Joanito Dorronsoro, *Bertso doinutegia* (4. tomo), Donostia: Euskal Herriko Bertsolari Elkarte, 1995.
- Abestien eta pieza musikalen ordena**
- 376 abesti edo pieza musikal daude bilduta, gehi Leonardo Zelaiaren REA/JK koadernoko baladen harmonizazio-saioak (39 pieza), hirugarren eranskinean jasoak. Pieza bakoitzaren aldaera nagusiak ere kontutan hartu ditugu. Bilduma honetan digitalizatu eta osorik jaso gabe geratu dira Arantzazuko bost obra sinfoniko-koral handiak: Frantzisko Madina, Frantzisko Escudero, Felix Ibarro, Tomas Aragüés eta Iñaxio Ibarrendorenak; baina horien hasierako orrialdeak ekarri ditugu, lekukotzat edo (ik. bigarren eranskina).
- Honako sail hauetan sailkaku ditugu abesti eta piezok:
- I-II. Arantzazuko bi abesti enblematikoenak: “Arantzazuko Ama Birjina” (Jose Ignazio Arana / Modesto Letamendia) eta “Agur, agur, agur, Maria” (Felipe Arrese Beitia / Felipe Gorriti). Bi musikarien jatorrizko doinuen ondoren, horien gain beste musikariek landutako harmonizazio guztiak bildu ditugu bakoitzean.
- III-IV. Konposatzaileen arabera ordenatuta, kronologikoki jarriarik autoreak, beraien jaiotza-urtearen arabera oro har. Autore bakoitzaren obretan ez dugu ordena berezirik bilatu, sarritan konposizio-urtea ezezaguna delako, besteak beste; eta konposatzaile anonimoenak.
- V-VI-VII: Arantzazuko hiru kanta-sorta berezi eta kideko: S. Mitxelenak eraturako AEP-ko doinuak eta *Ogei Kanta Arantzazuko* liburuxka, J. M. Ibarbiak bildutako *Arantzazukoak* sorta, eta M. Idoiagak organorako harmonizatutako *Ogei Kanta Arantzazuko*-ko piezak.
- VIII: Arantzazuko baladak eta herri-doinu zaharrak.
- IX: Arantzazuko Andre Mariaren gorazarre liturgikoak
- X: Arantzazuko Frantziskotar Probintziaren ereserkiak.
- XI. *Eranskinak*: 1. Abesteko eta musika-tresnaz jotzeko hamabi pieza: *Arantzazuko* (L. Zelaia), *Arantzazuko* (A. Ibarro), *Arantzazuko* (J. M. Glez. Bastida), *Arantzazuko* (J. Elberdin), *Ama Birjinari azken agurra* (F. Gorriti), *Arantzazura-1* (J. Arrue), *Arantzazura-2* (J. Arrue), *Goazen Arantzazura* (A. (Ibarro), *Aloña. Arantzazuko mendi abestia / Aloñan gora* (T. Garbizu), *Ave de Aránzazu* (J. J. Ndad. Garmendia), *Zuk zer dezu*, *Arantzazu* (I. Ansorena) eta *Arantzazura. Irailak 9* (Iñaxio Ibarro). 2. Obra sinfoniko-koralak, gorago aipaturikoak. 3. L. Zelaiaren harmonizazio-lanak (REA/JK-ko baladenak). Horiei erantsi behar zaie 4. eranskina, non partituretatik kanpo geraturiko abesti hainbaten estrofak jaso baititugu.
- XI. *Atal gehigarria*. Bilduma eratu ondoren aurkituriko abestiena; irekita geratzen da atal hau, nahi duenak aurki edo sor ditzakeen berriak ere sartzeko, eta horrela bilduma osatuz joateko.
- Sail handiena III-IV da, noski; konposatzaile bakoitza bere piezekin; baina horietako batzuk beste ataletan ere ager daitezke, bestelako pieza espezifikoeekin. Abesti-sorta bereziak (V-VI-VII) beren osotasunean hartu nahi izan ditugu, eta konposatzailearen bat horko “Arantzazukoak” sortan bakarrik agertuko da, eta ez III/IV sailean. Arantzazuko abestien sorta bereziak osorik hartu nahi izan di-

tugunez, abestiren bat edo beste errepikatuta ager daiteke, aldaera berbera.

Bilduma honetan zenbakituta doaz abesti eta pieza guztiak: Z/001-tik hasi eta bukaeraraino, errazago identifikatu eta bilatu ahal izateko.

Hasierako aurkibide orokorraz gain, bildumaren azke-nean doa kanta guztien tituluen aurkibidea, ordena alfabetikoan eta ortografia gaurkotuan idatzita.

### Partiturak eta testua

Dokumentazio-lana egin nahi izan dugu bereziki hemen. Horregatik saiatu gara jatorrizkoan dauden bezala ematen partiturak, nahiz eta batzuetan horiek idazteko bestelako modurik izan gaur egun. Era berean, abestien tituluen eta testuen idazkera jatorrizkoa utzi dugu funtsean, gaurko ortografiara ekarri gabe oro har; batzuetan bakarrik sartu ditugu aldaketa ortografiko txikiak. Dokumentuok zabaldu eta erabiltzeko, batzuetan eguneratu egin beharko dira, batez ere ortografiaren aldetik.

Dena dela, musikari eta olerkari eta idazleen euskal abizenak gaurko euskal grafiara ekarri ditugu: Azkue, Idoiaga, Orkaiztegi, Omaetxebarria, Zelaia, etab.

Partituretan sarritan ez da abesti-testuen autorea ageri; saiatu gara horrelakoen izenak bilatzen. Aurkitu ditugunean beti jarri ditugu –zalantzazkoak galdera-zeinuaz–. Idazlearen edo musikariaren izenak ezezagunak zaizkigunean, “anonimotzat” jo ditugu testu-doinuak.

Bestalde, maiz “herri-doinua” agertuko da doinu-sortzaile jakinaren izenaren orde. Izan ere, Arantzazuko tradizio musikala oso lotua dago herri-doinuei. Bertako baladak jatorriz dira herritarrenak, herritar anonimoek sortuak –doinu eta hitz– eta herritarrek kantatu eta zabalduak. Arantzazuko poeta eta kantari hainbatek zuzenean hartu izan ditu bestelako euskal herri-doinuak, beren olerkiei moldatzeko –S. Mitxelena da horietan nabarmenena–; gainera konposatzaileetako asko herri-doinuotan –Arantzazukoetan edo bestelakoetan– oinarritu edo inspiratu izan dira beren kantak eta harmonizazioak –ahotsentzakoak, organokoak, bestelako musika-tresnetakoak– lantzeko.

Era berean “Balada” hitza jarri dugu batzuetan, beste-

Donostia, 2018ko martxoaren 25ean

rik gabe, horrelakoen testuen autoretza aitortzeko, herri-literaturakoak direlako.

Gehienetan testu-ahapaldi bakarra eman dugu partituraren barruan; euskarazko eta gaztelaniazko testua duten abestietan, euskarazkoa lehenetsi izan dugu; baina inoiz bi hizkuntzetakoak eman ditugu. Partituratik kanpo geraturiko erdarazko testua edo musikariak emandako euskarazko estrofa gehigarriak batzuetan partituraren azpian bertan eman ditugu; beste batzuetan, ordea, bildumaren laugarren eranskinean ikus daitezke; horrelakoak E.T.G. siglaz adierazita daude partitura azpiko oharrean. Jatorrizko olerkiak luzeagoak izanez gero, horrelakoak osorik ezagutu nahi dituenak ADK liburu saileko olerkien edizio kritikoan aurki ditzake: VI.ean euskarazkoak –*Arantzazuko kanta berriak*– eta VIII.ean erdarazkoak –*Arantzazu cantado por los poetas*–.

### Iturriak eta horien kopiak

Artxibo-lana da funtsean bilduma hau. Hainbat iturritatik datoz hemengo partiturak: artxibo, liburu, aldizkari, etab. etatik. Bakoitzaren azkenean dago iturriaren edo iturrien berri emanda, artxiboko signaturarekin edo erreferentzia bibliografikoaren bidez. Arantzazuko Musika Artxibokoak beren lokalizazio zaharrekin daude: “AranMusArtx, D 37”, adibidez. Bilduma honetako partitura gehienak Arantzazukoak dira; baina horiei gehitu behar zaizkie orain beste lekuetan aurkitutakoak ere.

Bildumaren paperezko kopiarekin batera kopia digitala eman dugu, hiru formatotan: partituren notazio digitale-rako erabilitako *Encore* eta dena maketatzeko *Indesign* formatoetan, eta gainera *Adobe Acrobat* .pdf formatoan. Edozein piezaren erabiltzaileak partituraren itxura edo testuaren idazkera (ortografia) eguneratu eta egokitu nahi badu, aplikazio horiek edo baliokideak erabiliz egin ahal izango du, bere erarako partitura sortuz.

Erabilitako jatorrizko partitura guztien paperezko kopien (fotokopien edota eskaneatuen) bilduma gehigarria eratu dugu, hemengo bilduma digital honetako zenbakien arabera ordenatuta eta zenbakituta; Arantzazuko Artxi-boan eskura eduki ahal izango du nahi duenak, han eta hemen sakabanaturiko jatorrizkoen bila ibili beharrik gabe.

*Paulo Agirrebaltzategi*

### Argibidea:

*Abestiren batzuei egindako oharren azkenean E.T.G. siglak ikus daitezke (= Estrofa eta Testu Gehigarriak). Zera adierazten du horrek: a) jatorrizko partituraren azpian beste estrofa-aren bat edo abesteko testu gehigarria dagoela idatzita, b) jatorrizko partituraren barruan erdarazko testua dagoela, notazio digital berriarekin batera jaso ez duguna. Horrelakoak bilduma honen laugarren eranskinera eraman ditugu, abesti-partituren arabera ordenatuta. Horrela jatorrizko abestiaren testua osatu ahal izango du nahi duenak.*